

UZTURRETIK ▶
XABIER TELLERIAEtxeko gizon
baten
aienek

Animoz baju samar harra-
patu dut nire lagun bat,
ilunabarrean elkarrekin
basoerdi bana hartu dugune-
an.

Arratsaldea plantxan eman omen du, lisatzen. Irratia izan du lagun zeregin aspergarrian. Esatariaren marmarra; kontu arinak eta musika astuna txanda librean, martxoaren 8koa hizpide, emakume langileen egunarena. Eta tartean, aditu pare baten iritziak.

Adituak, politikari profesionala bata, eta unibertsitateko irakaslea bestea. Prestigio sozial handiko gizona, biak ala biak. Ezkertiar labeldunak eta progresiaren prototipoak. Salatzera datoz oraindik ere emakumeek ez dituztela gizonzkoen aukera berberak lana aurkitzerakoan, ez ordain-sarrietan, ez eta lan-maillatan gora egiteko bideetan. Ondoren, luze eta ozen aritu dira hori gutzia konpontzeko gizar-teak aldatu beharreko jarrearen inguruan, hartzea komeniko liratekeen neurriak, etab. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna, helburu iraultzaile bezala hartuta.

Nire laguna pentsatzen jarri da, bi aditu hauek inoiz uko egin ote dioten deiren bati, dela soziala, dela lanaldi barrukoa edo handik kanpoko, dela sakelako txin-txin hotsa alaiagoa bihurtzen dutenak; zenbat bider esan ote dioten ezetz gure gizartean prestigioa ematen duen egiteko bati, oraintsu arte emakumezkoenak soilik izan diren lanei behingoz heltzen joateko. Eta imajinatu du gizon hauen etxetan, beharbada, emakumeek ere lan horien zama arinduta izango dutela, kanpoko emakume batek, aukera hoberen faltan, nola-halako ordainsariaz, lan horiek egiten dizkietelako. Margaret Bullen irakasleari Argian egin berri dioten elkarrizketa irakurtzeko eskatu dit.

Nire laguna animatzen saiatu naiz. Esan diot iraultzaile builosoena baino behar handiagoa dugula bere lan isilarena. Debaldeko prediku arrandiosena baino, pauso txiki ondo emanarena. Apenas kontentzitu dudana.



Duela mende bateko prozesioa Aste Santuan

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Prudencio Arrieta argazkilari tolosarrak XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran herriko argazki ugari atera zituen. Hona hemen Aste Santu bateko

prozesioan Nafarroako zubian ateratako argazkia. Jende ugari ikus daiteke. Postal bilduma bat egin zuten argazki hauekin.

'TOLOSA. ARGAZKIAK 1842-1900' LIBURUA

Datorren igandean Aberri Eguna ospatuko da Euskal Herriko hainbat herritan;
HITZAK hiru alderdi abertzale nagusien ordezkari batzuei egun horrek
sortarazten dien gogoeta eskatu die

IRITZIA ▶ RAFA URIBARREN (EAJ-LEGEBILTZARKIDEA)

Hazia ereiten dugu

Ilusioz beterik eta itxaropentsu egingo diogu harrera aurtengo Aberri Egunari. Gure herriak berebiziko momentua bizi du eta inoiz ez bezalako tresnak ditugu herri bezala aurrera egiteko. Herri bat garela eta gure etorkizuna erabakitze eskubi-dea dugula oinarritzat hartuta, datorren legegintzaldian, oztipoak oztipo, herri galdeketa deituko du Ibarretxe Lehendakariak, eta, horren aurrean, abertzale sentitzen den orok, parte-hartze zuzena eta aktiboa izan beharko du. Zein abertzalek uka litzake oinarritzko bi premisa horiek? Zalantzarik gabe, eta, berriro diot, abertzale sentitzen denak, ezin du itsuarena egin datorkigun aukeraren aurrean. 2004ko abenduaren 30ean hazia erein genuen, eta, bazterrak harrotu ere! Orduetik hona ez dago atzera bueltarik.

Esan beharrik ez dago, bidean aurkituko

ditugun eragozpenak hamaikatxo izango direla. Norbaitek pentsa lezake estatua indartsu dagoela baina, dogmatikoa ematen badu ere, justu aurkakoa dela irizten diot. Errespetatzen ez bagaituzte, beldur demokratikoa digutela esan nahi du. Madrilekoek jakin badakite hemen herri bat dagoela, eta, ez dekretu bidez, ez epaileen bidez, Herria ezin izango dutela bahitu. Hemen izaera politikoa duen gatazka historikoak konpondu gabe jarraitzen du eta horri ezin zaio arduragabekeriarekin erantzun.

Estatutu Politiko Berriaren Proposamenak bizikidetzarako proiektua eskaintzen digu, Euskal Autonomia Erkidegoko herriar guztientzat eginiko proiektua, alegia. Eusko Alderdi Jeltzalearen nahiak oso bestelakoak dira, ordea. Gure alderdiaren xede nagusia Euskal Herri osoa batu eta askatzea izan da betidanik. Hitz bitan, gure bu-

ruaren jabe izatea. Abertzale gisa, gure lana ez da Euskal Autonomia Erkidegoan amaitzen. Nahiz eta gutxiengo politikoa egon, Lapurdi, Behe Nafarroa, Zuberoa eta Nafarroan, euskal herritarrak egon badaude, eta han, lan asko dago egiteko oraindik. Euskal Herria zazpi lurraldez osatua dago eta hiritar horiek guztiak osatzen dute Euskal Herria. Hori da, aurtan ere, Aberri Egunean aldarrikatuko duguna, Euskal Herri aske eta batua nahi dugula. Baina, aurtan, are indartsuago entzungo da gure aldarria, 2004ko abenduaren 30ean onartu zenari bultzada eman behar diogulako. Indarrak hartu beharko ditugu abertzaleen egunean, bidea ez baita erraza izango. Baten batzuk hautesleak lokartu nahian dabilta, baina gure zeregina abertzale uholdea biltzea da. Hazia erein dugu eta makina martxan jarri dugu. Ezin dugu aukera alferrik galdu.

ABERRI EGUNA ▶ DEIALDIAK

Udalbiltza (ezker abertzalea). Hendaian 12:30ean. Aduna, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Leaburu, Lizartza, Orexa, Tolosa,

Villabona eta Zizurkilen. **Udalbiltza (EA-EAJ).** Amaiurren 09:30ean. **EAJ.** Bilbo: 11:00etan kale animazioa, 11:30ean dantza

erakustaldia, 12:00etan mitina plaza Barrian eta 14:30ean bazkaria Areatza plazan. **EA.** Gernikako Santanape frontoian mitina, bazkalostean.

Aralar. 12:30ean Andramari elizpean. **Batasuna.** Manifestazioa 17:00etan Iruñeko Golem zinematik abiatuta.

IRITZIA ▶ MAIXABEL ARRIETA (EZKER ABERTZALEA-VILLABONAKO ALKATE OHIA)

Aberri Eguna eta gaurko egoera politikoa

Aberria zen gure ametsa Franco hil aurretik, euskaldunok gure herria aske izatea lortu nahi genuen, hori zen abertzale guztien ametsa. Mota guztietako borrokok zilegi ziren, edozein pertsona, herri edo nazio zapalduak beraien eskubideak lortzeko duen zilegitasuna bezalaxe.

Diktadura baten aurka borroka guztiak posible dira eta garai hartako jendeak hori onartzen zuen. Hala eta guztiz ere, diktadura garaian oso eroso bizi zen jendea ere bazegoen, ez zitzairen batere axola Euskal Herriko hizkuntza, ohiturak, kultura... erabat zanpatuak edukitzea, Espainiako hizkuntza eta edozein ohitura askoz aurrerakoiagoak kontsideratzen zituztelako. Espainiara zen guztia bultzatzena behartuak geunden eta gure herria ezabatuarazi nahi ziguten boterean zeudene eta lehen aipatutako komodo bizi zen jendeak.

Gure herriaren zapalkuntza bultzatzen zuen indarra izugarria izan arren, euskaldun askok amesten genuen diktadorea hil ondoren Euskal Herri libre bat izango genuela. 1975. urtean iritsi zen diktaduraren amaiera eta horrekin batera euskaldun askoren ametsak piztu, emango ziren aldaketan itxaropenean. Eta gertatu zen azkenean hainbeste irrikatutako aldaketa, abertzaleen artean batzuk nahiz eta hasieran apustu serioa egin, gero Euskal Herri gisa eskubide guztiak bermatzeko oinarriak ezarri beharrean, Autonomi Estatutuarekin konformatu ziren eta autonomi horrekin ados ez

zegoenari inposatu egin zioten, diktadurak egin zuen gauza bera egin zuten Estatutuaren bidez eta gainera demokraziaren izeanean, eta beste 25 urtetan noraezean ibili da Euskal Herria estatutuarekin; bitartean, espainiarrak beraien eskubide guztiak ongi bermatuak dituztela, ederki bizi dira.

Bestalde, benetako Euskal Herri libre bat amesten dutenak gero eta okerrago daude; estatutuarekin konforme daudenak, berriz, sekulako lanak egiten ari dira orain demokrazian gaudela esanaz eta ezin dela ezer errebindikatu eta Euskal Herri libre batengatik borrokatzen duten guztiak ETArekin nahastu dituzte eta biolentoen multzoan sartu eta ondorioz, Madrilek, Parisetik eta euskal gobernu demokratik edozer gauza egin dezakete *biolentoen* aurka. *Biolentoen* multzoan sartzen dira gaur egun euskararen alde, hemengo ohituren eta kulturaren alde ari diren guztiak, beraz, bertan sartzen dira abertzale guztiak eta beraien kontra bai Madrileko gobernuak, Pariseko gobernuak eta euskal gobernuak edozer egin dezakete inpunitate osoz, etxe-

bizitzak miatu edozein garaitan, prentsaren bidez edozer gauza esan eta egin, guardia zibilak, polizia eta ertzainak abilotuei edozein delitu inputatzen dizkiete inongo frogarik gabe, nahiz eta bere legeak «epaia bidez frogatzen ez den bitartean, edozein pertsona errugabea da» esan, gainera bost egunetarako inkomunikatzen dituzte eta era guztietako torturak jasaten dituzte, bai fisikoak eta baita psikologikoak ere. Nahiz eta tortura horien aurka salaketak jarri, sekula ez dute aurrera egiten.

Gaur egun ezker abertzaleak eta bere inguruko hainbat herritarrek ez dute inongo eskubiderik; nola da posible demokrazia batean hau gertatzea? Diktadura garaian ere ez zen horrelakorik gertatzen.

Espainiako Konstituzioak babesten dituen oinarriko eskubideak egunero urratzen dituzte, hala nola, askatasun ideologikoa, askatasun eskubidea, ohorea, intimitate pertsonala eta familiarrerako eskubideak...

Demokrazia batean aipatutako eskubide horiek eta aipatu gabeko beste hainbat bermatu beharko lirarteke herritar guztientzat. Beraz, nola onartzen dituzte eskubideen eguneroko urraketa hauek, preso politikoak sakabanaketa, torturak, inongo bermen gabeko epaiketak, tribunal bereziak, lege diskriminatzaileak eta herritarren aurkako hainbat gehiegikeria, irain, prentsa ixteak... euskaldun izate hutsagatik, aho betez demokrazian bizi gairela esaten dutenek?

NAHASKETA

«Euskal Herri libre batengatik borrokatzen duten guztiak ETArekin nahastu dituzte eta biolentoen multzoan sartu dituzte»

IRITZIA ▶ ONINTZA LASA (EA-LEGE BILTZARKIDEA, ZINEGOTZIA ETA KOMUNIKAZIO ARDURADUNA)

Ospakizun eta aldarrikatze eguna

Abertzaleontzat berezia izaten da Aberri Eguna, herriaren eguna. Hunkigarria esango nuke dela. Ospakizun eguna gure izatearen harrotasuna aldarrikatzen dugun egun berezi honetan. Izan ere, gure herriaren argakia argi dugunok, gure izatea argi dugunok aldarrikatzen jarraitu behar dugu.

Urtero, jai giro apartan, Euskal Herriko emakume eta gizon andana biltzen garen honetan, Herri bat gairela ozenki aldarrikatu ohi dugu. Herri bezala eskubideak ditugula. Eta eskubide horiek berez dagozkigula, inork eman gabe. Inoren kontzesio izan gabe. Aldiz, ukatu egiten zaizkigu gure herriaren existentzia onartu nahi ez dutenen aldetik, hots, Frantzia eta Espainiako estatuen aldetik.

Dena den, herri honek zerbait izan badu bere historia guztian zehar, bere nortasunaren defentsarako indarra da. Eta indar horrek bere horretan dirau gaur egun ere. Itzelak pasatu arazi dizkigute, kulturaren, hizkuntzaren, nortasunaren, historiaren, identitatearen aurkako errepresio eta ezkutatzeko estrategia franko erabili izan dira. Baina, zerbait ukaezina bada, herri honek bere horretan iraun duena da. Herri honek, bere emakume eta gizonen lan eta inplikazioa tarteko, aurrera segi du.

Aurtengo Aberri Eguna ere aldarrikapen eguna izango da. Giro alaietan, baina al-

darrikapenetan sendo. Azken urte honetan aurrerapen handiak eman izan dira eta horren frogara argia Gasteizko Legebiltzarrean iragan abenduaren 30ean onarturiko beste marko batetarako proposamena. Gehiengo absolutoko baiezkotza eman zion, Erkidegoko gizartearen gehiengo ordezkatzen duen ganbarak.

Jakin badakigu, gure herriaren inposaturiko zatiketa juridiko administratiboa dela medio, egun, motor lana erkidegoan finkatu dela, betiere herri guztiari zabal-tzen zaion proposamenak jasoz. Independentzia azken helburu gisa defendatzen dugunontzat, agian urrun samar ere gertatzen zaizkigun tarteko helburuak jasotzen dituen. Eta, edonola ere, garrantzi handiko aurrerapauso bat ematen duena.

Frantziako estatuak euskal folklorea hala nola onartzeaz gain, ez du hizkuntzaren ofizialtasunik onartzen eta zer esanik ez herri existentzia. Espainiak teoriar

INDEPENDENTZIA

«XXI. mendea independentziaren mendea izan dadin da Eusko Alkartasunaren jomuga, eta nolahi ere, euskal gizarteak erabakiko duen mendea»

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika: 67 53 90

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, M.I. Kale Nagusia

7 (Tolosa). 943 67 06 48

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112

Bihar. Azpiroz, M.L. Amaro 9

(Tolosa). 943 67 51 18

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112

Etzi. Olarreaga, J. M.J. Iraola 10

(Tolosa). 943 67 24 38

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112

Astelehenean. Bronte, C.

Korreo 20 (Tolosa). 943 676013

Gimeno. Elbarren 52 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Leitza. Oialde taberna alokatzen da. Jatebea aparte alokatzeko aukera. Interesatek deitu 948 510 213ra.

LANA

Ileapaintzailea. Ileapaintzaile bat behar da sei hilabetetarako. 943 694 261.

SALGA

Teklatua. Roland VA7 markako teklatua saltzen da. Deitu 943 11 77 38 zenbakira.

Gora Euskal Herria askatuta!

ARTEA ▶

Argitara begira

Koloreak adina ilusio eta erregu darabiltza buruan Matxin Labaien margolariak; xumetasunaren argiz dakusa mundua; batzuetan biziago, bestetan ilunago



Matxin Labaien etxean, berak egindako koadro bat erakusten; ondoan beste hainbat koadro pila ditu. AÑON OHELLA / ARGIA PRESS

GORKA EROSTARTE / BERRIA

«Artea, berdin zati abstraktua den edo konkretua den berdin klasiko edo moderno. Ona bada, gustukoa dugu. Berdin gustatzen zaitziko Velazquez, Picasso edota Kandinski. «Klasiko» bata, modernoa bestea, abstraktua azkena. Hirurak gustatzen zaitziki. Hala behar du, gainera». Artea bizi du, arteak bizi du. Artea arnasten du Matxin Labaienek. Baina artea, artea, artea... Hala ere, akasoa horrengatik, gertukoan eta herrikideen onespina, ere bestea eta matxista jaso izan du 2000. urtean. *Matxin, bi egun... bizi*za bat izaneko argazki liburua argitaratu zuen Joseba Urretabizkaia argazkilaria tolosarrak. Duela bi urte omenaldi eskaini zuen Tolosa Udalari, erakusketan baten bidez.

Soldaduska egitera Ceutara —Afrika iparraldeko Espainia-ko kolonia— bidali zutenan, ez zuen espero bizi izan zuen adinako barne buladak bizi izango zuzenik. Han sentitu zuen bere burua pintore aurrenekoen da eta. Ez du, ez Jennifer Lopezen tankerarik, ez eta beharrik ere. Zamara luza, eta buruan trankia darama, negu gor-

diari aurre egiteko —duela 20 egun egiten emakurrizketak— —Ez ditu ure bakar batean ere berdu. Umorea du sobran, eta Holywoodeko izarek urri duten apalatasuna. Lanbros ta berna tokian zintzilatatu berri dizikio berak egindako zenbait koadro. «Ihuxo handia egiten dit. Margolariak jendeari erakusteko egiten batira. Artea, bai ezin izan soziala behar luke eta. Ez da hegoaldeko ohiho bako izan. Ez du hasien erretrik erakarri. Ez du erakusarero handietan bere margolanak erakutsi. Inoiz inoiz egun du. Hala ere, akasoa horrengatik, gertukoan eta herrikideen onespina, ere bestea eta matxista jaso izan du 2000. urtean. *Matxin, bi egun... bizi*za bat izaneko argazki liburua argitaratu zuen Joseba Urretabizkaia argazkilaria tolosarrak. Duela bi urte omenaldi eskaini zuen Tolosa Udalari, erakusketan baten bidez.

Soldaduska egitera Ceutara —Afrika iparraldeko Espainia-ko kolonia— bidali zutenan, ez zuen espero bizi izan zuen adinako barne buladak bizi izango zuzenik. Han sentitu zuen bere burua pintore aurrenekoen da eta. Ez du, ez Jennifer Lopezen tankerarik, ez eta beharrik ere. Zamara luza, eta buruan trankia darama, negu gor-

diari aurre egiteko —duela 20 egun egiten emakurrizketak— —Ez ditu ure bakar batean ere berdu. Umorea du sobran, eta Holywoodeko izarek urri duten apalatasuna. Lanbros ta berna tokian zintzilatatu berri dizikio berak egindako zenbait koadro. «Ihuxo handia egiten dit. Margolariak jendeari erakusteko egiten batira. Artea, bai ezin izan soziala behar luke eta. Ez da hegoaldeko ohiho bako izan. Ez du hasien erretrik erakarri. Ez du erakusarero handietan bere margolanak erakutsi. Inoiz inoiz egun du. Hala ere, akasoa horrengatik, gertukoan eta herrikideen onespina, ere bestea eta matxista jaso izan du 2000. urtean. *Matxin, bi egun... bizi*za bat izaneko argazki liburua argitaratu zuen Joseba Urretabizkaia argazkilaria tolosarrak. Duela bi urte omenaldi eskaini zuen Tolosa Udalari, erakusketan baten bidez.

Soldaduska egitera Ceutara —Afrika iparraldeko Espainia-ko kolonia— bidali zutenan, ez zuen espero bizi izan zuen adinako barne buladak bizi izango zuzenik. Han sentitu zuen bere burua pintore aurrenekoen da eta. Ez du, ez Jennifer Lopezen tankerarik, ez eta beharrik ere. Zamara luza, eta buruan trankia darama, negu gor-

Pariseko bohemiar bizimodua
Asko bidatu zuen soldaduskatik etorri ondoren. Parisen izan zen aurreneko, 1966an. «68 hilabete egun nintzen han, arte akademian baten ikasle Bertio artistak ezagutu nuten, bohemiar bizimodua ezagutu nuen. Montmartre... Ni ez nintzen askorik barretarrak, baina ezagutu nuen». Madribera joan zen hurrena, 1968an: «Madribera joan. Gurekoko paisaia eta kolorea ezagutu nuten. Hangi kolorea ilun samarra da, eta nire margoak ilundu egin ziren. Ezagutu artistiko zein pertsonalerako egindako bi dalda hurrakozta Londreen amatu zuen, 1972an. «Oso pin-

tura klasiko dute han, berak diren bezalaxe». Inoizko bidala, ordea, hala beharrez, bost ure baino ez zituela egin zuen, sendiarikin batera, Antonio Maria Labaien (Tolosa, 1896-1994) euskaltzale, antzerkigile eta politikari jeltzalea zuen aita. Espainiako gerra jaiki zen eta Saran (Lapurdi) babestu behar izan zuten, Prefetena etxean: «Urte zora-gariak igatu nuten. Hura paradiatu rokki bat izan zen niretzat. Hegoaldean tiroka ziren bitartean, tximeletak harpa-pantzen antzen nintzen ni eta hain hasi nintzen nire lehen margo zintzarrikat egiten. Hortik hasi da, eta?».

Gogokak haurtzarora egitea eta gurasoen ororimen nahiz erromina sentitzea bat izan da: «Aita gizon osoa zen. Euskara, gaitelaria, frantsesa, ingelesa eta alemana bazekizien. Artea ez bazekien, biolina jotzen zuten, idazle eta antzerkigilea zuten, politikaria... Tolosa ingurura, lehenbizikoakoa aber-zaletza izan zen. Aitak, Lazark, Orixe eta Antzek sortu zuten euskal mugimendua hemen. Oso euskaltzalea eta abertzalea zen, eta tolerantzia oso kal-tera eta tolerantzia ikasi nuten hangeandik». Ama orotzen, berehala traza hartu du bere arpegirik. Irria agertu zain,

baina irri tristea. Hurbilago du haren heriotza —1999an zen- du zen Carmen Sansinenea—, eta harenkin bizi izan zen azken- unera arte: «Naitena amari zor diot. Hark hazi gintuen. Piano karrera egin zuen Madriberan. Oso emakume alai zen, eta ama zen... Zer esango dizut bala. Hunkitu egin da. Eta esplikatu digu zergatik: «Amarekin bizi nintzen, eta ama falta zait duela sei bat urte, eta bakar- daidea... Bakar daidea oso go- gorra da erraioak».

Gurasoak ez, baina Ramon anai- a —politikaria, Donostia-ko alkate izana, besteak beste— bizi- rik du: «Anai, politika hu- ta da, plazaziona. Oso ezber- dinak ez izan. Bera mutur batean dago eta ni bestean, nahik- a-so, pentasmen- daz hain ezber- dinak ez izan. Bera politikari- k hutsa da. Ez du esaten hori- gaitxi dagoekin, baina ezber- dinak gara». Politika interes- atzen ez zaien galdetu diegu. Auzpegi seriotu zain: «Politika- k interesatzen zaidan? Iria, aizu, bai. Baina nola defintzen du- gu politika. Niretzat politika zer- bati bat da. Ez da autoritari- sma, ez da alderdierria. Politi- ka herrari zor zaien zerbitzu- da, eta hori auzari egiten du- gu askotan. Ez dut jusean argita- ritza edo partidukeria bezala. Ez dut esaten interesarria ez denik, baina... Ideologia baino gehiago, pertsonak eta zerbi- tuzia inporta zaitzik niri».

Egunero pintatzen
Hats hartu du, Begirada balke- rik mairatu du aurreneko: Es- tudio erdian dagoen mahai gaineko margolan bati txiki baten paratu du, berak egindako erretratu bat da, nekaketa bat ageri da, bi motoketin, auzpe- gi xalo eta tribarre goxoare- kin. «Maitetxo da, nire musa. Honak inprastan nire margo- tzerako ordutan. 1961 egin- nion erretratu. Konta ingu- ruan pasaeon txikiak guraso- kin. Ni margotzen ari nintzen. Hurbidu zitzauden eta erretra- tuak egin nuen. Zein polita den, Artek biziarzen nau». Eta arnaitz osoa zuen. Beren la- euskal mugimendua hemen. Oso euskaltzalea eta abertzalea zen, eta tolerantzia oso kal- tera eta tolerantzia ikasi nuten hangeandik». Ama orotzen, berehala traza hartu du bere arpegirik. Irria agertu zain,

DI-DA BATEAN ▶

Margolari bat. Velazquez. Pintore eternoak. **Euskal pintore bat.** Gaspar Montes hurriz. Paisaia mar- golarik handia. **Musikari bat.** Hasendel. Jeinu bat. 24 egunean idazti zuen Mieses obra. **Euskal musikari bat.** Mauri- ce Ravel. **Idazle bat.** Cervantes. Don Quijote niresten dut. Gaine- ra, euskaraz badugu. **Euskal idazle bat.** Orixe. Gure aitarien laguna zuen, eta gure etxean izan zen. **Kolore bat.** Mores, neu ere more samarra naiz eta. Eus- kal Herriko kolorea da. Kolo- re serioa da. austeroa. Tris- tea ez, baina serioa. **Paisaia bat.** Iazkungo gai- ka keu arropoa da paisaia margotzeko. Aralar ikusten da bertatik. **Ametsa.** Pintatzen ari gizona. Nire bizi- tza pintura da, eta bizi- tzen jarraitu nahi dudut. **Pintatzen jarraitu behar dut.** **Urtaro bat.** Udaberria. Udaberriak oso urte kolore ederrik ditu, baina oso tris- tea da. Ezpin motak ditu. Hi- labete ederrena ekaina da. Oso egun argiak dira, bai pintatzeko eta bai denonako. **Eguneko urte bat.** Arratsal- dia.



Familia. Ramon anaiarekin —ezkerrean— eta amarekin. IRTA



Kasleak. 70eko hamarkadan arte eskolak ematen. IRTA



Beltza. Testua. AÑON OHELLA / ARGIA PRESS

giako bihotz mundua betetzen du. Etxean denean margotzen du, baina, ahal dela, nahigo izaten du kanpora irten: «Gu- raldi ona izenez gero, kanpora iristen naiz margotzeko, argita- ra. Berastegira, Gazteura, Her- nanira, Donostira, Iazkunge- ra... Mugitu egiten naiz ahal- dela, horrek bizi ematen bal- titu. Aurten egi eta hoztek ez diote ihesi egin Matxinen pintzelari: «Paisaia ederrik sortu ditu aurretiko neguak, eta ezin hartarapeteke utzi. Al- fexeria izaten zuten, baina gero pena handia ematen dizu...».

Autorik ez du enbilzen, «es- kulis ez dut bala izan guzuz ho- rietarako», eta autobusaz na- huz trenez doa batera eta beste- ra. Ez autorik, ez eta telebi- sariarik ere. «Berrak baino bizi- ez du ematen, eta ilobari opa- ritu nion». Ez autorik, ez tele- bisariarik, ez eta ordenagailu- rik ere: «Euskiak diru nire ordena- gailua. Ordenagailua zehatza- gona da, perfektuagoa. Iruu di- tut erakusteko orok ordena- gailuz eginkak, eta oso politik- baina eskuarren berotasuna beste guzua baldin».

Iratsia entzuten du goiztan. Egunariak irakurtzen ditu eguerdi partean. Eta musika entzuten du egun osoan. «Ma-

gariak jarriko ditut egunka- rietan hurrengo urterako eta prezio medikoak. Ez tratatzen du. «Giro gogorra bizi dugu urte- tan, eta nire margotzen eta na- harrtu dut hori, ilunak aterat- zen zaitzik eta. Gogorra da, gero herri honetan dugun ez- nikusia. Hori ez dut sekula ere ulertu. Zak hazi pentatu- duzu eta nik hura, baina horre- gatik ez agurtzea ez. Baina hori Tolosan gertatzen da! Gize- ri eta dogmatikoa duzu. Niri pertsonekin hitz egitea gusta- tzen zait, ez ideologikoki. Niri galdetzen didate zein alderdi- takoa naiz, eta euskalduna naizela erantzuten dit. Euska- din izatearekin dut konpromi- soa. Bada zer bizi? Denek mahai berean jarri eta hitz egit- en ez duten bitartean, arazo- a ez da konpondatzen. Neuk ihu- ko al dut konpondatzen?».

Aterakoia ez den sententia- rekin agurtu dugu Matxin La- baien. Argitara begira jarraitu du.

siak baretu egiten nau, espiri- tusa lasaitzen ditu. Eskio gure- tako musika atsegin du. Zim- ezkaian jarri. Euskal kantarik alpu- tu dizkigu: Berito Lertun- di, Antton Valverde, Mikol La- bos, Xabier Lete, Gonzal Men- dibil, Ez Dok Amairu... Aipatu dizkigu besteak ere: Pachi- do Domingo, Nino Broa, Louis Armstrong, Nat King Cole, Ma- hala Jackson, Erdi Aroko mus- ka, kantu gregoriarra, klasiko- kua, rocka eta bluesa. Baina la- denen gainetik, Luis Mariano: «A zer ahotsa zuen, hunkigari- rik». Musika entzan bakarrik ez, jo ere jotzen du. Pianoa, «Amarena zen, 70 urtetik gora- ditu. Nik sinia la. Gaurten jo- tzen dut pianoa, obra joan e- rretirik».

Literatura du bizi- tzen beste maki- ta nagusia: «Denetarik irakurri behar da, eta mundura treki. Ez, ni hemen eta zu hor- geratu. Libururik gabe ez dago demokraziarik». Poesia irakur- ten du gehien, euskarazko: Etxepare, Axular, Orixe, Leau- xeta, Lizardi, Aresti... Gazte- lizazkoak ere gustatzen ditu. Pio Baroja, Gabriel Zelaia, Juan Ba- rmon Jimenez, Garcia Lorca... Zinema ere beti gustatu izan- zaino, batez ere paisaia eta ide- atiak ateratzeko: «Orain ere sarri joaten naiz Leidor zine- mara. Koaderno eta guzti. Pen- taliak ematen argi apurra aprobetxatzen dut zirraborta- egiteko, eta gero etxean gira- tzen dut».

Paisaia eta natura. Horiek izan dira Matxinen margoketa- ren bi oinarriak: «Natura beti

agertu da nire koadroetan: ihasoak, mendia, zuerak, baserri- ak... Tolosa inguruetako paisa- iak, Sarakoak, Gaztelako- ak... Natura jakintsua da. Na- turatik ikasi beharoko gurek, mairu- mairu mairuak baino gehiago». Mendia gertu du To- losan. Ihasoak ere ez urritu. Ihasoak mairu du gehiago or- dea: «Nire gai nagusia, gai mina, ihasoak da. Ihasoak bizi- tza dauka, hotsa, mugtu egiten da».

Maisu bokazioa

Matxinek berak mairu jardu- zen 70eko hamarkadan. Arto- ko klasiko ematen zituen, etxe- an, jaso zen etxean bertan, orain ere leku berean bizi da, baina etxe zaharra bota eta pi- suak egin zituzten. «Beti izan- dut maisu bokazioa. Ederra da dakizun apurra besteei eraku- ti eta dogmatikoa ematea, fra-

gariak jarriko ditut egunka- rietan hurrengo urterako eta prezio medikoak. Ez tratatzen du. «Giro gogorra bizi dugu urte- tan, eta nire margotzen eta na- harrtu dut hori, ilunak aterat- zen zaitzik eta. Gogorra da, gero herri honetan dugun ez- nikusia. Hori ez dut sekula ere ulertu. Zak hazi pentatu- duzu eta nik hura, baina horre- gatik ez agurtzea ez. Baina hori Tolosan gertatzen da! Gize- ri eta dogmatikoa duzu. Niri pertsonekin hitz egitea gusta- tzen zait, ez ideologikoki. Niri galdetzen didate zein alderdi- takoa naiz, eta euskalduna naizela erantzuten dit. Euska- din izatearekin dut konpromi- soa. Bada zer bizi? Denek mahai berean jarri eta hitz egit- en ez duten bitartean, arazo- a ez da konpondatzen. Neuk ihu- ko al dut konpondatzen?».

Aterakoia ez den sententia- rekin agurtu dugu Matxin La- baien. Argitara begira jarraitu du.

Mahala
BARRIO PRODUKTU NATURAL
Jogurtu
Mahala botanika 100% LEBARU
Tel-Fax: 943 65 900
Web: www.mahala.com

TOLARGI
Lekuzko argia. Berri
Luz eta Beldun. Toloa
Pablo Corosalba kalea, 34 8. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Fax: 943 65 00 65
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

IBARRA-LIZARTZA ▶ ATXILOKETAK

Maite Aranalde Fresnesen eta Haimar Altuna Meaux-en sarditzaten agindu du epaileak

«Helburu terroristak dituzten gaizkileekin harremanak izan» dituztela argudiatu du Marie-Antoinette Hoyvet epaileak horretarako; Altunak «kolpe aztarnak» ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Lau egun inkomunikatuta igaro eta gero, Haimar Altuna lizartarra eta Maite Aranalde ibartarra eta Iñaki Aretaleaniz-beaskoa bergararra epailearen aurretik pasatu ziren herenegun arratsaldean. Hain zuzen, Marie-Antoinette Hoyvet epaileak hiru atxilotuen kartzelaratzea agindu zuen («helburu terroristak dituzten gaizkileekin harremana izatea» leporatuta. Horrela, Arietaleaniz bergararra Osny-ko kartzelan sartzea agindu zuen, Aranalde ibartarra Fresnesen eta Altuna ibartarra Meaux-en. Lehendabiziko aldia da preso politiko bat Meaux-en espetxeratzea agintzen dutela. Bi ibartarrak, beraz, batzabeste 900 kilometro ingurura egongo dira euren etxeetatik.

Hirurak egoera onean aurkitzen badira ere, Yolanda Molina, Haimar Altunaren abokatuak lizartzarren senideei esandakoaren arabera, «jasandako kolpeen aztarnak baditu oraindik [Altunak] eta salatu egingo dute hirurek atxilotetaren uanean poliziak izandako jarrera gogorra». Bestalde, atxiloteta gertatu zen unetik hiru euskal herritarrek gosse grebari ekin ziotela jakin zuten senideek herenegun.



Manifestazio jendetsua egin zuten herenegun Lizartzan. I.TERRADILLOS

Hasierako unetik informazio gutxi izan dutela azaldu dute, ordea; atxiloteta gertatu zenean non zeuden ziurtasunez ez zuten jakin, euren egoeraz ezer gutxi jakin dute, eta espetxera bidali dituztenean akusazioak zehazki zertan datzan ez dakitela adierazi dute. Gainera, ez dakitela noiz izango duten atxilotuak bisitatzera joateko baimena eta gutxienez hilabete edo hilabete eta erdi igaroko

dela uste dutela azaldu dute senideek.

Atxiloteta horiek salatze hainbat mobilizazio egin dituzte larunbatetik hona bai Ibarrran eta baita Lizartzan ere. Azken, herenegun gauean izan zen, eskualdeko manifestazioa egin baitzuten Lizartzan Amnistia Aldeko Mugimendua bultzatuta. 200 bat lagun gerturatu ziren Lizartzara Haimar, Maite... askatu lelopean

manifestazioan abiatzeko. Herriko plazatik atera aurretik, atxilotuen azken orduko egoeraren berri eman zuten senideek abokatuarekin orduantxe aritu baitziren hitz egiten.

Atxiloteta gehiago

Herenegun atxiloteta gehiago izan ziren Frantziako hegomendebaldeko Lannemezan herrian. Joseba Segurola azpeitiarra eta Itsaso Zaldia hernaniarra dira atxilotuak. Polizia operazioa Espainiako eta Frantziako segurtasun indarren elkarlanaren ondorio izan zen eta pistola bana, lehergailuak, agiri faltsuak, matrikula plaka faltsuak eta autoak lapurtzeko tresnak atzeman zizkiela zabaldu zuten. Espainiako Poliziak «hainbat atentatu egin izana eta erakunde armatuaren barruan ardurak izatea» leporatzen dio Segurolari. Atxilotekin bukatutzat emango litzaiteke *Kartzela* izenarekin Espainiako eta Frantziako poliziak abian jarritako operazioa.

Bestalde, atzo beste bi lagun atxilotu zituzten Bizkaian, Ermuan; Guardia Zibilaren kontrol bat «saihesten saiatu» ziren 18 urteko Mikeldi Zengaindia aulestierra eta 21 urteko Iker Legarra gizaburuarra. Gerarazi eta autoa miazte-

ESPETXERATUAK ▶



MAITE ARANALDE

- ▶ Ibartarra, 23 urte.
- ▶ Frantziako eta Espainiako polizia indarrek elkarrekin egindako operazioan atxilotu zuten martxoaren 19an Le Cap d'Adgen, Montpellier ondoan (Frantzia).
- ▶ Herenegundik Fresnes espetxean dute.



HAIMAR ALTUNA

- ▶ Lizartarra, 29 urte.
- ▶ Frantziako eta Espainiako polizia indarrek elkarrekin egindako operazioan atxilotu zuten martxoaren 19an Le Cap d'Adgen, Montpellier ondoan (Frantzia).
- ▶ Herenegundik Meaux-eko espetxean dute.

an ETaren *Zutabe* aldizkariaren 50 bat ale aurkitu zizkietela esan zuen Guardia Zibilak operazioaren berri ematerakoan.

hitza

txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GUTUN@K 

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Ibartar baten atxiloketaren aurrean, Udalaren jarrera

Maite Aranalde ibartarren atxiloketaren aurrean, Ibarrako Udalaren jarrera pasiboa eta inplikazio era salatu nahi dugu. Maite larunbatean atxilotu zuten. Asteazkenera arte inkomunikazioa luzatu daitekeela ikusirik eta atxilotuen inkomunikazioetan ematen diren tortura kaso ugarietz kezkatutik, Maite inkomunikazio egoera horretan zegoen denbora tartean, Ibarrako Udalak Maite-

ren eskubideen babesean bere hitza ozen agertu zuen. Horregatik, astelehen goizean bertan, lehenengo orduan, Uztako zinegotzi taldeak, ezohiko eta premiako batzar baterako eskaria eta Maiteren atxiloketa salatzen moziolari sarrera eman genion udaletxean.

Astearte iluntzean, oraindik inongo berririk ez dugula ikusirik, Mikel Agirre zinegotziari gaiaz galdetuz hau izan zen bere erantzuna: moziaria euskaraz zegoenez (alkatea ez da euskalduna), oraindik ez zela alkatearen eskuetara iritsi (itzultze lanak...). Honen aurrean, zera salatu nahi dugu:

1.- Ibarrako Udalak uko egin

dio ibartar baten eskubideen babesean agertzeko eskariari. Denborak ez digu aitzakia bezala balio, behin baino gehiagotan ikusi baititugu zenbait egoera tamalgarri gertatu izan direnean, azkar asko mugitzen, nahiz eta ibartarrik ez izan babesaren beharrean zirenen artean (M- 11, adibidez).

2.- Maiteren atxiloketa bezalako egoera gogorak eragiten dituen, Euskal Herriak bizi eta sufrizten duen gatazka politikoaren muina eta konponbideak azpimarratzei uko egin dio Ibarrako Udalak.

3.- Azkenik, salagarria erabat, Ibarra bezalako herri es-

kaldunean eta Tolosaldea den eskualde euskaldunarekin, udal ordezkari nagusiak ez menperatzea herrian hitz egiten diren bi hizkuntzak. Hori bai dela euskararen normal-kuntza plan guztiak gainetik pasatzea. Eta larriagoa dena, Mikelek [Agirre] dioena egia bada, hau da, euskaraz Udalari zuzentzeak eragin duela gure eskaria tratatu ezinik gerratzea, euskaldunon hizkuntz eskubideen urraketa larri bezain argia egin du Ibarrako Udalak.

Alderdi batzuek, batez ere hauteskundeetan, euskararen normalizazioa eta euskaldunon hizkuntz eskubideez hitz egi-

ten dute, instituzioetan denok parte hartzeko eskubideez hitz egiten dute. Gatazka politikoa konpondu beharrez hitz egiten dute, eta giza eskubideez hitz egiten dute, baina gero ikusi besterik ez dago zein den beraien jokatzeko modua.

Amaitzeko, Maite eta bera bezala, Ibarratik kanpo dauden ibartar guztiak herria, Ibarrara itzultzeko eta gisa horretako egoerak sortzen dituen Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko ahaleginean gure konpromisoa eta indar osoa berresten dugu.

IÑAKI URKIZAR, MARIJO RUIZ, AINARA OTAEGI. AMAIA BALZA, MIKEL IGLESIAS (UZTA PLATAFORMA) ▶ IBARRA

ABERRI EGUNA ▶

Ikurrinari omenaldia egingo diote igandean

Ezker abertzaleko Udalbiltzak deituta, Aberri Eguneko ekitaldiak burutuko dituzte eskualdeko hainbat herritan

IMANOL GARCIA

Ezker abertzaleko Udalbiltzak deituta, eskualdeko hainbat herritan ekitaldiak egingo dituzte etzi, Pazko Igandean, Aberri Eguna dela eta. Aduan, Anoetan, Asteasun, Ibarran, Leaburun, Lizartzan, Orexan, Tolosan, Villabona-Amasan eta Zizurkilen egingo dituzte ekitaldiak *Urrats sendoak ematen* lelopean.

Aberri Eguneko ospakizunek antzeko egitaraua izango dute: 12:00etan udaletxe aurrean elkartu eta dantzariak lagundurik ikurrinari omenaldia egin, Ezker abertzaleko Udalbiltzaren manifestua irakurri eta hamaiketako emango dute, bukaeran.

Herri batzuetan, ordea, bada berezitasunik. Leaburun, esaterako, 11:00etan hasiko dira Aberri Eguneko ekitaldiak eta ondoren, 11:30ean, Saharako Guelta herriarekin izandako anaitasunaren hasierako harremanak ospatuko dituzte. Lehenengo anaitasunaren plaka jartze ekitaldia egingo dute eta

bertan parte hartuko dute Tolosaldea Sahararekin elkarteko ordezkariak, Euskadiko Fronte Polisarioko ordezkariak eta Leaburu-Txaramako Udaleko ordezkariak. Ondoren, herriko dantza taldearen omenaldia izango da eta amaitzeko anaitasunaren hamaiketako egingo dute.

Orexan, bestalde, 09:30ean abiatuko da Urizar mendira egingo duten ibilaldia. Ondoren, herrira jaitsi eta 13:00ak eta 13:30ak bitartean hamaiketako egingo dute. Eguraldi ona eginez gero plazan izango da; bestela, elkartean bilduko dira.

Asteasun ere ibilalditxo bat egingo dute Txortu tontorrera. 10:30ean bilduko dira herriko plazan eta 11:00etan Txortun dagoen ikurrinari omenaldia egingo diote. Ondoren, 12:00etan, ekitaldi politikoa egingo dute herriko plazan. Azkenik, Iruñean izango den manifestaldira joateko elkartuko dira 15:00etan, plazan.

Anoetako herri plataformak, bere aldetik, idatzi bat zabaldu

du herrian, Aberri Egunean, «ospakizun egunaz gain, aldarrikapen eguna ere izan behar duela» azalduz. «Izan ere, gure aberriari, Euskal Herriari, herri bezala dituen eskubideak ukatzen baitizkiote bi estatuek». Aipamenik ere egiten dute idatzian apirilaren 17an egingo diren hauteskunde buruz, «ez direla egoera demokratiko batean burutuko» esanez. Ezker abertzaleko Udalbiltzaren aurtengo leloa gogoratu, «oraindik pausoko ematen jarraitu beharrean gaude, herri honi dagozkion eskubideak errespetatuak izatea lortu arte», jartzen dute idatzian herri plataformakoei eta etzi «etxetako balkoian ikurrina jartzeko eta plazan egingo den ekitaldian parte hartzeko» deialdia egiten dute.

ARAMBURU

Salgai (Ibarra). Pisu zoragarria Euskal Herria kalean. Garaje itxia aukeran.

Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m². Berritua.

Salgai (Tolosa). Pisu handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².

Salgai (Tolosa). Garaje itxia Plaza Zaharran.

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremendi kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

PRESOAK ▶

Sakabanaketarekin amaitzea, «guztion esku»

Ettxerat-ek eragile, instituzio, alderdi politiko zein norbanakoei konpromisoa eskatzen die

I. GARCIA

Euskal preso, errefuxiatu eta iheslarien senideak biltzen dituen Ettxerat elkartetik adierazi dutenez, «EAEn egingo diren hauteskundeetara aurkeztu diren lehendakariak zuzenean jakinarazten ari gara» presoak zein balditzetan dituzten. Sakabanaketak «hil egiten duela, tratu txarrak, isolamenduak eta jipoiak ahalbidetzen dituela» salatzen dute Ettxerat-etik. Egoera horretan mantentzea («sufri-menduaren luzatzea besterik ez dakarrela» gaineratzen dute.

Egun Euskal Preso Politikoen Kolektiboa egiten ari den gose greba aipatzen dute se-

nideen elkartekoei eta sakabanaketaren politikarekin amaitzea «guztion esku» dagoela azaltzen dute: «Eragile, instituzio, alderdi politiko hizkuntz norbanako guztiok harzen ditugun konpromisoen arabera dago sakabanaketa politikarekin amaitu eta euskal preso politikoa Euskal Herriratzea».

Hain zuzen, gaur arratsaldean, hilabeteko azken ostiralean egin ohi denez, elkarretaratzeak egingo dituzte euskal preso politikoen eskubideen alde, ohiko leku eta orduetan. Elkarretaratze hauetan bi argazki berri gehituko dira, Maite Aranalderena Ibarran eta Haimar Altunarena Lizartzan.

iragarki laburrak ▶

Peoiak. Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.

Sukaldari laguntzaileak. sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: ikastebeak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. Informatu. 943 65 01 93

Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.

Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.

Haur Hezkuntza. 106 plaza gaztelazko, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.

Gidariak. Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Aitzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak Arraikiatan berezia



© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremendi kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 25a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albarra, Alegia, Alkiza, Alzu, Amezketa, Anoeta, Arrese, Balarra, Belduza, Berastegi, Berrobi, Etxebarri, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Lizartza, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzenbe
besterk: Leizaldeko Euzkara Batasuna

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurfari-tza,
Kultura Saria



GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

17

hotzena

11

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: ez
Albi: ez

Pagomari: ez
Igaratza: ez

HITZA-KO BEZERÖEN
ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak, harpidet egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Areso. Emakumeen afaria etzi Pake toki elkartean. Izen-ematea: okindegian, Sastinea tabernan eta elkartean.
Orexa. Eskulanetan ari diren emakumeen erakusketa udaletxeko ganbaran, 17:00etatik 19:00etara, astelehena bitarte.
Tolosa. *Hitch, especialista en ligues* filma Leidorren 19:30ean eta 22:30ean. Bihar 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.
Astelehenean *Blade trinity* 17:00, 19:30 eta 22:30ean.

ELIZKIZUNAK

GAUR

Gurutze-bideak

Abaltzisketa. 10:00.
Aduna. 09:00.
Albiztur. 08:00.
Alegia. 07:30 eta 11:00 (gaztel)
Altzo. 10:00.
Amezketeta. 09:00, Ugarte 11:00.
Anoeta. 10:00.
Areso. 12:00.
Asteasu. 09:00, elizan.
Belauntza. 12:00.

Berastegi. 10:00.
Bidegoian. Bidania, 09:00; Goiatz, 10:00.
Elduain. 11:30.
Ibarra. 10:00.
Ikaztegieta. 11:00.
Irura. 11:00.
Larraul. 09:00.
Leaburu. 11:30.
Leitza. 08:00.
Lizartza. 09:30.
Tolosa. Izaskun 07:30. Santa Maria, 11:00. Korpus Kristi, 12:00. San Frantzisko, 10:00. Aldaba, 11:00.
Villabona. 08:00 Amasara, 10:00 elizan.

Zizurkil. San Millan, 07:00; Elbarrena-Arantzazu, 21:00.

Nekaldiak

Abaltzisketa. 16:30.
Aduna. 17:00.
Albiztur. 17:00.
Alegia. 17:00.
Alkiza. 17:00.
Altzo. 19:00.
Amezketeta. 18:00.
Anoeta. 17:00.
Areso. 17:30.
Asteasu. 17:00.
Baliarrain. 18:30.
Belauntza. 15:30.
Berastegi. 17:00, Eldua 16:30.
Berrobi. 18:30.
Bidegoian. Bidania 19:00, Goiatz, 18:00.
Elduain. 19:00.
Gaztelu. 17:00.
Hernialde. 19:00.
Ibarra. 19:00.
Ikaztegieta. 19:00.
Irura. 19:30.
Larraul. 17:00.
Leaburu. 16:30, Txarama 18:00.
Leitza. 17:00.
Lizartza. 11:00 (haur eta gurasoentzat) 18:00.
Orendain. 18:30.
Orexa. 19:00.
Tolosa. Santa Maria 18:00, Arramele 17:00, San Frantzisko 17:00, Santa Klara 18:00, Aldaba 19:00, Bedaio 17:00, Korpus Kristi 18:00, Amaro 18:00, Olarrain 21:00.
Villabona. 11:00 (haurrak), 19:00, Amasa 16:30.
Zizurkil. San Millan, 16:00; Elbarrena-Arantzazu, 18:00.

Goiatz, 21:00.
Elduain. 21:00.
Gaztelu. 20:00.
Ibarra. 19:30.
Irura. 21:00.
Leaburu. 20:00.
Leitza. 22:00.
Lizartza. 20:30.
Orexa. 22:00.
Tolosa. Santa Maria 22:00, Arramele 20:30, San Frantzisko 21:00, Santa Klara, 21:00, Korpus Kristi 21:00, Amaro 20:00.
Villabona. 21:00, Amasa 22:00.
Zizurkil. Arantzazu 22:00.

ETZI

Mezak

Abaltzisketa. 10:00, Larraitz 12:30.
Aduna. 11:00.
Albiztur. 11:15.
Alegia. 11:15.
Alkiza. 10:00.
Altzo. 10:00.
Amezketeta. 11:30, Ugarte 10:00.
Anoeta. 12:00.
Areso. 12:00.
Asteasu. 11:15.
Baliarrain. 11:15.
Belauntza. 12:00.
Berastegi. 12:00, Eldua 10:00.
Berrobi. 11:30.
Bidegoian. Bidania, 11:30.
Elduain. 10:00.
Gaztelu. 10:30.
Hernialde. 12:30.
Ibarra. 11:00 eta 12:00.
Ikaztegieta. 12:30.
Larraul. 09:30.
Leaburu. 10:30.
Leitza. 11:00.
Lizartza. 11:00.
Orendain. 11:15.
Orexa. 12:00.
Tolosa. Santa Maria, 11:00 eta 12:30, San Frantzisko 08:00, 10:00, 11:00, 12:00 eta 13:00, Aldaba, 12:30. Bedaio, 10:00. Amaro, 09:30 eta 12:30.
Villabona. 12:30, Amasa 11:00.
Zizurkil. San Millan 11:00, Elbarrena-Arantzazu 12:30.

AGURRAK ▶

Pello Sagastume Saralegi
II. urtemuga

Bi urte luze igaro dira joan zinela hemendio zure hitzak ta irrifarrea barrun dauzken oraindiko utzi dituzun adar xumeok ez teu esan nahi adio sustrai sendo ta bihotz handiko baitzinen attona Pelo

Ez adionk jaster arte baizik attona Inoiz ahaztuko ezazu tuigan Leire, Josune, Aintzane eta Jabier zure bikirik

Larraul, 1929-8-29. Maritxu, 1930-7-10

PRESOAK
GOSE GREBANI!

EUSKAL PRESOAK GOSE GREBAN

Hamaikagarren eguna. Borroka da bide bakarra. Euskal presoak etxera orain! Besarkada iraultzailea zuentzat, Leizatik.

BIHAR

Pazko gaubelak

Aduna. 19:00.
Alegia. 20:00.
Alkiza. 22:00.
Asteasu. 21:00.
Areso. 21:30.
Belauntza. 19:00.
Berastegi. 21:00, Eldua 18:00.
Berrobi. 20:00.
Bidegoian. Bidania, 19:30;



URTE ASKOAN

Juan Tolosa (Ugarte-Amezketeta).
Astelehenean 86 urte. Segi horrela umoretsu.
Zorionak aurrerapenez familaren partetik.



URTE ASKOAN

Ane Otamendi (Abaltzisketa).
8 urte bete dituen ebeko neska panpox honi, muku handi bat.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!